

Militantzia

NEUREAREN azpian zetorren eta begiak ezinbestean erori zitzaizkidan A. Azkargorta adiskidearen artikulua gainera, Ekainaren 26an. Militantzia politikoa gainean ez da aspaldi askorik idazten eta eskertzekoa da gai hori astindu izana, kolumna erdi batek ematen duen aukera horretarako eskastxo baldin bada ere. Gaurkotasan gehiago mereziko lukeen gaia da. Ea hariari gehiagok heltzen dion.

Néu ez nintzen oso gustora gelditu Antonen azterketa-apuntearekin. Fedea bazterten du. Ongi. Horrek ez du ezer pintatzen politikari. Konfidantza bi zatitan banatzen duten *disziplinaren* eta *errebeldiaren* kontzeptuak sartzen ditu militantzia politikoa. Erakunde bide zuzenetik dabilela ikusten dugun bitartean, disziplina. Erakundeak, gure ustez, bide okerrera jotzen duenean, errebeldia.

Nerekiko, erabat hankamotz gelditzen da militante hori. Hamalau urteko mutikoa-erentzat balioko luke, agian, baina helduagoentzat ez. Hamalau urteko gaztetxoarentzat jokabide normala da hori: bere helburuak betetzen diren bitartean gurasoen esana egin; hori lortzerik ez duenean, errebelatu. Baina militantzia politikoa sartuak dabilzanak hamalau urte baino helduxagoak izan ohi dira.

Ez ditut gauzak desitxuratu nahi. Egia da, hamalau urteko gaztetxoak ez duen kritika darara atzean, seguruenik, militantearen errebeldiak. Erakundearen jokaeraren kritika, heterokritika. Disziplina eta errebeldia ezer ez dira, alegia, militante batentzat zero balioa

dute. Zeretik gertukoa, heterokritikan bakarrik oinarritzen badira, lehenago eta azpirago beste balore bat agertzen ez bada, *autokritikarena*, hain zuzen. Eta horren arrastorik ez dut ikusten Antton adiskidearen artikuluan. Nik autore txinarrak ez dut aipatuko, bai, ordea, italiar bat, A. Gramsci, besteak beste bere jaiotzako ehungarren urtemuga ospatzen dugulako aurten. Autokritika dela eta, haren pasarterik kopiatzerik ez zait interesatzen, bere obra baita erabat autokritikoa. Bere obra, osoa eta, batez ere, bere militantzia osoa.


Iruditzen zait jarrera absolutuen arteko gerran sartuak gabiltzala politika kontuetan ia gehienetan. Eta hemen ere horrelako zerbitz somatzen dut. Baztertu nahi ditugun fedezko printzipioetatik oso urruti ez gabiltza, agian. Alde batetik disziplina; bestetik, horren kontra, errebeldia. Autokritika, heldutasunaren ezaugarri nabarmenena, egia osoen sare

galgarritik ihes egiteko bide bakarra du militantek.

Hots, zenbait galdera: zein zerutan eta nolako trumoi-tximisten artean aldarrikatu dira gure helburuak? Zein mendi sakratutan gure bideak eta bitartekoak? Jarrera okerra besteena izan beharren geurea balitz? Autokritikaren bidea serio egiten bada, gure helburuak eta gure fideltasunak kritikapean ezartzen baditugu, erakunde pikutara bidali eta geure burua erakunde bihurtzea primeran ikusten dut. Baina nik errebeldiaren lurraldera proposatuko nukeen balizko bidaia ez da disziplinan hasten, autokritikan baizik.

Halere, disziplina akritikoa erori ez denak ez du gero errebeldiarako estrata malkarra eta minkorra urratzen ibili beharrik izango. Ibili horrek ez du merezi. Ez du merezi disziplinaren eta errebeldiaren esparrutan itzulika ibiltzea, morrontzaren esparruak baitira. Bai batak eta bai besteak morrontzaren marka agerigian dute, alegia, aitaren beharra, lehenik esanera egoteko; gero, errebelatzeko. Bide antzuak dira horiek. Antzuak norbere buruarekiko, eta antzuak politikagintzarako. Gure Herri honi gerta dakioken gauzarik pozgarriena disziplinatuen eta errebelatuen (txanpon bakarraren bi aurpegiak) multzoa muriztea eta autokritikatuena haunditzea izango litzateke. Orduantxe hasiko ginatke ikuskizun berri bat ikusten, hau da, banaturik behar luketenak banatuta, eta batetik behar luketenak batuta.

EUSEBIO OSA
EHU-KO IRAKASLEA



Konpetitibitatearen atzean

ELA-REN iritiz, konpetitibitate hitzarmenaren atzean ez dago soldaten murrizketa bat baino. Gure enpresak Europaren erronkaren aurrean dituzten benetazko arazoei interbideak ematen ahalegindu beharrean langileon irabaziak mugatu nahi dituzte konpetitibitate hitzarmenaren bitartez. ELArentzat gure lantegiak dituzten konpetitibitate arazoak sektoreka edo-ta banan banan aztertu behar dira. Alperrik dira izen handiz, baina sakontasunik gabeko plangintzak. Ez da harrizketa aipaturikoa kontutan izanik edozein eratako negoziaketari uko egitea gure aldetik. ELAren ustez soldadak ez dira konpetitibitatearen arazorik nagusienak. Aldiz konpetitibitate hobetzeko nahitaez-

koak dira enpresen dimensio egokiak, inbertsio berrien bitartez tresneria aldatzea, eta komertzial sareak sortzea. Era honetan ere gogoratu behar dugu, Estatu Espainiarrean 1985. urteaz geroztik Europako Ekonomi Elkartean soldaten balio bateratua % 0'6 igo dela, Estatu Espainiarrean 7'8an jeitsi den bitartean. ELArentzat argi dago soldatek ez dutela eragin handirik inflazioan, salneurrien % 20 besterik ez baitute suposatzen. Inflazioak gora egiten badu beste era bateko arrazoiengatik da. Mariano Rubio, Espainiako Banketxearen zuzendariak aitortu bezala zerbitzu sektoreak konpetitibitate gutxi izateak zerikusi handia du inflazioaren gorakadarekin. Beraz, nahiz eta Carlos Solchaga

ekonomia ministraria benetazko arazoak izkututzen ahalegindu, eta sindikatuak axolagabeko eta inolidario gisa aurkeztu, ez dugu etsiko. Gure enpresak konpetitiboak izatea nahi baldin badugu hitz dotoreak alde batera utziz banan banan aztertu behar ditugu eta lantegi bakoitzari edo taldeari irtenbideak aurkitu. Gu beti izango gaituzte prest Europaren erronkaren aurrean konpetitibitate arazoak aztertzeke sektore edo enpresa bakoitzetan, baina, beti ere kontutan izanik soldaten eragina mugatua dela.


JUAN MIGUEL MENDOZA
ELA-KO EKINTZA ERREBINDIKAPENEN ARDURADUNA

BERRIAK ZIRI



JOSU BERGARA
Eusko Jauriritzako Garraio eta Herri Lanetako kontseilari ohia
EL CORREO ESPAÑOL
1991-VI-29

« Harro gaude gainontzeko alderdietako buruzagitzetatik jaurtikitako ziplada pozointsuak Xabier Arzalluzen aurkakoak direlako »



GABRIEL URRALBURU
Nafarroako gobernuko lehendakari izan
hautagai sozialista
NAVARRA HOY
1991-VI-29

« PSOE erabateko defentsiban bizi da, erasotua sentitzen da, 7 milioi espainiarrek baino gehiagok alderdi horren aldeko botoa eman arren »



FAIK DIZDAREVIC
Jugoslaviako enbaxadorea
Madriren
DIARIO 16
1991-VI-29

« Indar batzuk lanean ari dira Jugoslavia suntsitzeko. Hain zuzen ere, indar populista, ultranazionalista eta neofaxistak »



ABASSI MADANI
Aljeriako buruzagi integrista
EL SOL
1991-VI-29

« Armada koartelera erretiratzen eta setio egoera kentzen ez badu, *jihad-a* (gerra santua) hasi beharko dugu »

ZAKILIXUT

© Olariagak

